

## EUSKAL NAZIONALISMOAREN DISKURTSOA

### GAUR EGUNGO IMMIGRAZIOAREN AURREAN

**Tesiaren egilea:** Iker Iraola Arretxe

**Unibertsitatea:** Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU)

**Saila:** Soziologia eta Gizarte Langintza saila

**Tesi-zuzendaria:** Julen Zabalo Bilbao

**Tesiaren laburpena:**

Doktorego-tesi honetan nazionalismoa eta immigrazioa jartzen dira harremanetan, helburua nazionalismo zehatz bat, euskal nazionalismoa, aztertzea izanik. Horretarako, euskal nazionalismoak gaur egungo immigrazioaz garatzen duen diskurtsoa behatzen da; izan ere, nazionalismo ororentzat immigrazioa gai adierazgarria izan ohi da, immigrazioak nazionalismoak bere nazioaz egiten duen definizioa *problematizatzen* duen heinean.

Ikerketaren eremutat Hego Euskal Herria hartuta, tesiak immigrazio-prozesu zehatz batekiko jarrera du aztergai: nagusiki 2000. urtetik aurrera nabarmentzen hasi zena, eta aurreko migrazio-fluxuekiko bereizgarritzat Espainiaz kanpoko jatorria duena. *Immigrazio berria*, edo *gaur egungo immigrazioa*, deitu diogu horri.

Ikerketaren kokapen teoriko moduan, tesi honek bi atal ditu. Lehenik, nazionalismoa aztertzen da, bai nazionalismoaren teoriaren ikuspegitik baita euskal nazionalismoaren ikuspegitik ere. Azken hori nabarmenduz, abertzaletasunak bilakaera argia izan du immigrazioarekiko diskurtsoan, 1960ko hamarkadatik aurrera, hasieran ezkerreko abertzaletasunari loturik. Laburbilduz, ordutik euskal nazionalismoak migratzaileak bere proiektu politikora erakartzea bilatu du, aukera diskurtsibo desberdinen bidez. Bestetik, kokapen teorikoaren bigarren atal gisa, arreta immigrazioan jartzen da, eta, migrazioen teorian nagusi diren ikuspegiak behatu ostean, Hego Euskal Herrirako migrazio-fluxu nagusiak berrikusten dira.

Metodologia kualitatiboaren bidez, tesi honek abertzaleek immigrazio berriaren aurrean eraikitzen duten diskurtsoa aztertzen du. Diskurtsoek errealitate sozialei zentzua ematen diete, eta, tesi honetan, batik bat nazioari eta nazionalismoari buruzko diskurtso nagusia, gailentzen dena, analizatzen da. Nabarmentzen diren gaien artean, ondokoak azpimarra daitezke, beste batzuen artean: 1960ko eta 1970eko hamarkadetan iritsitako immigrazioak abertzaleen diskurtsoan eskuratzeko duen garrantzia, euskarari buruzko ardura, eta immigrazioari buruzko diskurtso politikoa, hots, eraginari bideratua, eraikitzeko asmoa.

Tesiaren ondorio nagusia da euskal nazionalismoak, mugimendu politikoa den heinean, immigrazioaren irakurketa politikoa hobesten duela. Ondorioz, abertzaleek, beren diskurtsoan, euskal nazionalismoa eta immigrazioa bateragarria dela azpimarratu nahi dute, kontraesanekin batzuetan, immigrazioari loturiko *arazoak*

eta prozesu horrek euskal nazioaren funtsezko ezaugarritzat hartzen direnetan izan ditzakeen balizko ondorio ezkorak baino gehiago. Bide horretan, gai batzuk modu *problematikoan* bizi dira, baina horri ematen zaion erantzuna nazioaren definizio *itxi* bat eratzetik aldentzen da, oro har. Finean, immigrazio-prozesu berri batez ari bagara ere, euskal nazionalismoak XX. mendeko bigarren erdian izandako berritzearen bidetik jarraitzen du.